

PRAKTIKA:

(Mediku asko Ipameriketara joan dira, diru gehiago irabaziko duteako. Ingalaterrara mediku indio asko etorri ziren).

NHSren lorpena oso denbora gutxian lortu izan zen. Europan kokatzen da bereziki. Lorpen soziala da: denok izatea asistentzia medikorako aukera, eskubide globala. "El estado del bienestar", ez da berdina herrialde guztietan. Murrizketan eman izan dira azken denboraldian.

Espainia:

Espainia atzeratuta zegoen. XIX. mendean, bazeuden seguro txiki batzuk (espezialitaterako aukera zegoen) eta klinika/kontsulta pribatuak; baina gero bazeuden publikoak ere. 1908an, Instituto Nacional de Revisión sortu zen; obreroak eta zenbait langile (dependienteak zirenak) behartuta zeuden seguru hau izatera. Baina adibidez, denda propio izanez gero, ez zuten seguroa. Beraz, ez zegoen seguru unibertsalik.

1932an, I. Errepublikan, lan istripuen seguruak, amatasun seguruak... sortu ziren. Baina Gerra Zibilak dena hautsi zuen. Frankismoan, kostatu egin zen, eta 1960an, seguru obligatorioa ezarri zen; baita, erresidentzia publikoak (Arantzazun adibidez).

1975etik aurrera, demokrazian, estatuak tranferentziak egin zituen; sanitatea transferituta dago komunitate desberdinei. Adibidez, esaten da sistema sanitario ona dagoela Osakidetzan, eta Nafarroan, beste batzuekin alderatuta. Desberdintasunak daude komunitateen artean. Honek, medikuntza pribatua (seguru pribatua) egotea eragiten du. Askok seguru pribatua dute (10 milloi pertsonak Espainian). Rajoy-en gobernuak seguru publikoa murriztu zuen: etorkinek ez zuten seguru medikoa izateko aukerarik, eta seguruak kendu ziren errenta altua zuten pertsonenentzat. Dena dela sistema publikoa mantendu egin zen. Zorionez, gaur egun nahiko errekeratuta dago.

Sistema publikoa mantendu nahi da, baina horrek diru asko kostatzen du. Alemanian, Frantzian eta Ingalaterran ere murrizketak ematen ari dira. Frantzian egoera aztertzen ari dira. Sistema publikoa mantentzeko, zergak ordaindu behar dira.

AEB:

Estatu Batuak, gaur egun, munduko potentzietako bat da (Txinarekin batera). 50 millioi pertsonenentzat ez dute segururik. Sistema pribatua dago; dirudunek aukera asko dituzte, baina hainbeste diru ez dutenek edo lana galdu dutenek adibidez, ez dute horretarako aukerarik (horregatik biztanle askok ez dute segururik).

Sistema publikoaren aurka seguru-etxeak eta medikuak daude (interes ekonomikoengatik, diru asko irabazten dutelako).

Aginduan dagoen partidu politikoaren arabera, egoera aldatu egiten da.

Kennedy aurretik saiatu zen sistema publikoa bultzatzen. Hillary Clinton eta bere senarra, "Medicare" aplikatzen saiatu ziren; adin handiko jendearen eta inmigranteen osasuna babesteko. Ez zuten denentzako seguroa lortu.

Obamak, "Obamacare" jarri zuen martxan. Aukera ematen zuen seguru pribatua hartzeko, baina estatuaren laguntzarekin; horrela biztanle guztiek izango zuten seguru bat izateko aukera. Poliza

merkeekin, adibidez. Honek, enpresak aurka egotea ekarri zuen. Hauen arabera, sistema hau unibertsala izanez gero, beraiek dena galduko lukete. Jendeak, itxaron-zerrendak ez itxaroteagatik, seguru pribatua kontratatzen du. Kontuan izan behar da, estatu bakoitzak bere arau propioak ere badituela. Dena dago diruaren menpe. Trump-ek sistema hori puskatu nahi du, interes ekonomikoengatik.

European:

Medikuntza gero eta garestiagoa da. Dirua behar da sistema mantentzeko, eta zein da irtenbidea? Zergak gehiago igotzea? Jada, oso altu daude... Estatu bakoitzak lehentasuna zeri ematen dion arabera da.

Sistema publikoa lorpen bat da; baina etsai asko ditu.

Ginera adin handiko jende gehiago dago, eta zenbat eta nagusiago, medikazio eta atentzio mediko gehiago behar da. Sanitatea dugun gauza garrantzitsuena da, eta horregatik, atentzio minimo bat izatea beharrezkoa da. Murrizketekin, publikoa beherantz doa. Pertsona asko pribatura pasatzen dira.